tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

Harpidedunei banatua ▸ Igandea ▸ 2004-06-13 ▸ II. urtea ▸ 351. zenbakia

TOLOSA ▸

Urdaiazpiko mozketan maisu

Jose Mari Barriola saritu berri dute ▸ 2

Jaien azken eguna, sanjoanak arte Anoetan

EKITALDIAK ▸ Atzo ere ekitaldi ugari izan ziren, txalapartaldia eta dantza saioa, besteak beste

EGITARAUA ▸ Gaur kirolak, mus, dantza, musika eta zezen suzkoa izango dira aipagarrienak ▸ 6

Gazteak dantzari aritu ziren atzo arratsaldean kalez kale. GARAZI AZKUE

JAIONE ASTIBIA

Kirol Eguna izan da kiroldegian

LEITZA ▸ Gimnastika erritmikoa, saskibaloia eta herri kirolak izan ziren egun osoan zehar; herritarrak partaide izan ziren ▸ 7

TOLOSALDEA ▸

Gidabaimena ateratzeko garaia izaten da uda

Ikasleak opor garaian aritzen dira ▸ 4-5

UZTURRETIK ▸ AGUSTIN AMIANO

Gorostiaren arantza kamutsak

Urtetan baso izandako sailaren ertz batean naukazu, garai batean makur, baina orain bakan, bakardadean isolatua eta babesik gabeko espezie babestu bihurtua. Gorostia izateagatik irauteko eskubidea lortu duena eta zerra hotsak saihestuz baso osoa suntsitzen ikusteko aukera jasan duen landare ziztrina. Naturazaleen ikur bihurtu ninduten eta egur zaleen garantia izatera iritsi naizenaren ustea dut. Eta ustea ez da dena ustela, erdia baizik.

Honela, adar gehienak etenda, haizeak zarpailduta eta benetako inguruko babesa betirako galduta, orratz itxurako hosto arrotz eta zorrotzei begira nagokizu, tente bezain ziur behetik gora datozen landare ilarei.

Eta itxurak alde batera utzita, benetako babesa aldarrikatu nahi dut bizirik dirauten basoentzat. Nire fruitu gorrietan hegaztiengan zabaldu dut bizitzeko grina eta iraunarazteko gosea. Baina nahi nukeen tokira ezin naiz iritsi. Nire fruituaz elikatuz amesten ditudan abereek, bi oineko abereek, ez baitute fruiturik dastatzen; «bai polita gure lorategirako» bezalako esaldi menderatzaile batean geratu ohi baitira beti.

Hori bai, «natura errespetatu» edota «ingurumena zaindu» bezalako esaldi biribilak erabiliko dituzte urtean egun batez, baina etekin handiena nola atera pentsatzen jarri segidan. Etekin horrek etena noiz izan dezaken argudiatu gabe, ordea. Eta bitartean, basoa bezalako «ingurumen natural errespetagarri eta zaindua» bakantzera edo suntsitzera abiatuko dira berriro, gorbata etxean utzi eta makina modernoeneko gidariari aginduak emanez.

Eta nire hostoek zuten irmotasuna galduz doala antzeman dut, kolorea argituz, arantzak paper bihurtuz, itxura biribilduz, aldapak leunduz. Nirea bakarrik balitz... hutsa.

JOXE MARI BARRIOLA ▸ URDAIAZPIKO XERRATZEN ADITUA

«Lana festa gisara hartu behar da; bizitza ere bai»

Harakina, sukaldaria eta urdaiazpikoa xerratzen maisu; «Inauteri politak» egin daitezkeela dio San Frantzisko kalean sartu ere egin gabe: Joxe Mari Barriolaz ari gara

IRATXE ETXEBESTE

Bostetarako Donostian egon behar zuela, eta 15:30ean egin zuen HITZAREKIN hitzordua. Taberna batean, bazkalosteko kafea hartu nahi zuenez. Ordubetean nekez laburbildu daiteke bere bizitza. Eta halaxe izan zen. Oraindik ere bere lanbideez mintzatzen ari zela hots egin zion hitzordura joatekoa zenak. «Beranduxeago iritsiko naiz». Nerabezaroaz, familiaz eta Inauteriez aritzeke zegoen artean. Joxe Mari Barriolak luze zabal egiten du solas, izan ere. Eta hemen, ez dira haren adierazpenen erdiak ere sartzen.

Urdaiazpikoa xerratzen maisu omen zara. Sari bat ere irabazi duzu berriki.

Madrilgo *Gourmet*-eko azokan izan naiz lehiatzen, eta hirugarren saria jaso dut; pozik nago.

Harakina izan zinelako zara urdaiazpiko xerratzaile?

16 urterekin hasi nintzen gurasoen harategian lanean. Sei hilabetean ikasi nuen lanbidea, eta denbora librea banuenez, gehiago ikasi nahi izan dut. Sukaldaritzaz ere badakit, Madrilen jardun nuelako hiru urtez.

Hiruretan aritzen zara orain.

Ordezkapenak egiten ditut sukaldari, harakin edo urdai-saltzaile gisa. Harakin gazterik ez da egun, eta eskolarik ere ez. Zerbitzu hori eskaintzen diet harategia, jatetxea edo urdaitegia izan eta oporrak hartzeko aukerarik ez dutenei.

Bat aukeratzekotan?

Sukaldari izan nahi nuke, baina ez dut horrek eskatzen duena ordaindu nahi. Harategiaren eta ostalaritzaren arteko nahasketa da urdaiazpikoak xerratzen aritzea, eta hori indartu nahi dut.

Urdaiazpikoa labanaz moztu behar da, edo berdin balio du makinarekin ebakita?

Begiak itxiz gero inork ez luke nabarituko labanaz edo makinaz xerratuta dagoen. Labanarekin moztutakoa momentuan jaten da, eta hori du ona. Makinarekin ebakita etxera eramaten da, hozkailuan sartu... galdu egiten du urdaiazpikoak.

Guztiak berdinak al dira?

Ama berdinak erditu arren, seme-alabak ez dira berdinak izaten, ezta? Bada urdaiazpikoak ere ez. Hala ere, gero eta ahalegin handiagoa ari dira egiten urdaiazpiko guztiak genetikoki eta kalitate aldetik beretsuak izan daitezen.

Eta berdin xerratzen al dira?

Hiru eta lau urtekoak izaten dira; lau urtekoak zailagoak dira mozten, lehorrago daudelako.

Urdaiazpiko bat, zenbat jaleren artean?

Gutxi gora behera zortzi kilo ditu urdaiazpikoak, eta %45 botatzeko izaten da. Hori kontuan hartuta, ehun lagunentzako-edo izango da. Ordubetean hasi eta bukatzeko modukoa.

Hasitakoa, beti bukatzen da?

Hasi eta bukatu, hori da polita. Urdaiazpikoa bukatu gabe uzteak pena ematen dit.

Edanarekin lagundu behar izanez gero, zer?

Norberak gustuko duen horixe da onena. Ardo zuria iradokitzen dute adituek: manzanila eta finoa, bereziki. Neuk ez gehiago ezkontzen delako, baina ardo zuria nahiago dut. Gero eta gehiago ari naiz maitemintzen ardo zuriarekin.

Lodieraz, egokiena?

Neurrikoa behar du izan xerrak: ez txikia ez handia; ahoan ondo sartzeko modukoa. Hala ere, batzuk takotan nahiago dute, eta besteek fina.

Ezberdina da leku batean edo bestean moztea?

Ahal dudanean nire mahaia eramaten dut. Sukaldean aritu nintzenean esan zigun maisu batek: ez zaitezte sukaldeko igeltseroak izan.

Zer pentsatzen duzu urdaiazpikoak xerratzean?

Festak, ezkontzak, aurkezpenak... Orohar horrelako ekitaldietan eskatzen dute zerbitzua, ikuskizuna ere badelako. Jendeari transmititu nahi izaten diot urdaiazpikoa ez dela haragi soila; horren atzean lan handia dagoela eta momentuan zuretzat ari dela xerrak mozten. Urdaiazpikoak ez dira torlojuak; balio handia dute.

Gogoko duzu egiten duzuna...

Jende zelebrea topatzen dut (kar, kar)! Lana festa bezala hartu behar da; bizitza ere bai.

Festa aipatu duzula, tolosarra zara. Inauterizalea ere bai. Lotuta al doaz?

Ez dakit, niri txikitatik gustatu izan zaizkit. Arpegi taldearekin parte hartzen dut Ostiral meheko jaialdian, karrozetan ateratzen gara, eta Gure-Txokoa elkarteko bazkide ere banaiz.

Inauteriak, karrozei begira edo haien gainean?

Karrozen gainean bizitakoak oso politak dira, baina gu libreagoak gara, eta gauza bitxiak egin izan ditugu lehiaketatik kanpo. Inauteri politak egin daitezke San Frantzisko kalean sartu ere egin gabe. Elkarteetako Inauteriak ere aberasgarriak iruditzen zaizkit... Urtero ordubete hartzen dut, bestalde, jendeari begira egoteko. Mozorro ikaragarriak ikusten dira eta onak ere, asko.

HITZA

PERTSONALKI ▸

▸ Belauntzan jaioa ▸ 1973ko martxoaren 14an ▸ Tolosan bizi izan da duela lau urte, Irurara ezkondu zen arte ▸ 9 hilabeteko alaba du: Maren ▸ Zaletasunen artean, triatloia; dultzaina ere jo zuen ▸ Bidaiatzea ere atsegin du: Perun, Kuban, Guatemalan eta Mexikon egona da.

Haragia edo arraina? Haragia, neskak gustatzen zaizkit (eta ez mutilak). **Sukaldean nork egiten du etxean?** Gehienetan nik. **Inauteriak zer dira?** Parentesia bezala dira bizitzan. Desiatzen nago noiz iritsiko.

MOZTEA

«Urdaiazpikoa xerratzean transmititu nahi dut ez dela haragi soila; horren atzean lan handia dago, eta balio handia du»

KOMIKIA ▸ GORKA SALABERRIA

WEBGUNETIK ▸

Zer egin daiteke Zerkausian?

Goiko solairua aprobetxatzeko kafetegi bat jarriko nuke (bere terraza eta guzti). Bista polittak daude eta pena da itxita egotea. Haurrentzako jolaslekua ere prestatzea ez legoke gaizki.

AMAIA ▸ TOLOSA

Zerkausian ekintza mota desberdinak egiteko erabil daiteke. Larunbateko merkatuekin jarraituko nuke. Bestalde Garagardo Festa eta antzeko festak egiteko ere erabil daitekeela uste dut. Horretarako komenigarria litzateke Zerkausiak dituen zirrikitu guztiak estaltzea (neguan eta aurtengo udaberrian bezalako egun hotzak jasan ahal izateko). Bestetik eta udako egun beroetan pentsatuz, gazteentzako (12-17 urte bitarteko gazteentzako) aisialdiko ekintzak antola daitezkeela uste dut. Dena dela, urte osoan ere gaztetxoentzako ekintza asko antola daitezke bertan. Horretarako ditu Udalak gazte dinamizatzaileak eta bestelako langileak. Burua astindu eta jar daitezela horretan pentsatzen. Tolosako gazteak Udalarekin biltzen direnez, beraiek proposa ditzatela ere egin nahi dituzten ekintzak. Horretaz gain eta Tolosak piszina publiko «txukunik» ez daukala ikusirik, ez litzateke gaizki egongo Zerkausiko goialdea terraza batean bihurtzea eta bertara joaten direnentzat hamaka batzuk jartzea. Beroaren eraginari aurre egiteko ur mangera batzuk jarriko nituzke. Hoir guztia behar bezala osatzeko dutxa batzuk ere ez lirateke gaizki egongo. Baina gauzarik garrantzitsuena: hori guztia behar bezala atenditzeko Tolosako Udalak urte osorako zenbait lanpostu sor ditzake (langabezian dauden gazte eta helduentzat, 40 urtetik gorakoentzat) Zerkausiko ekintzek bigilantzia egokia izan dezaten eta bertan egiten diren ekintzetarako behar diren materialen montajea egiteko eta ekintza bukatutakoan guztia jaso eta garbitzeko. Hau dena egin ahal izateko formakuntza minimo bat beharko lukete bertan lanean ariko direnak eta hori egiteko Gurutze Gorria eta antzekoen laguntza eska daitekeela uste dut. Ea posible den tolosarrok proposatzen ditugun ekintzak Udalak kontuan hartu eta martxan jartzea. Hori antolatzea ez da hain zaila eta ea ez dugun urte bete baino gehiago itxaron behar guztia errealitate bihurtu arte.

MOIRA CEBERIO ▸ TOLOSA

Larunbatero azoka egiten jarraituko nuke, horrez gain, haurrentzako jolastokia eta kafetegia ezarriko nituzke, hori bai, plaza Berria gazteentzako gera dadila. Udalak haur eta gaztetxoentzako ekintza ezberdinak antolatu beharko lituzke: antzerki emanaldiak, jolasak.. Gazteentzako berriz, kontzertuak, errromeriak... antola ditzala. Tolosa hilda dago.

ENARA ▸ TOLOSA

Britania Handia hiru hilabete egoteko aukera izan dut. Londresen bisitan nengoenean mota honetako eraikin batean sartu nintzen eta kafetegiak, eserleku batzuk, musika... topatu nituen, oso ideia ona iruditu zitzaidan.

IÑIGO GOMEZ ▸ TOLOSA

iragarki laburrak ▸

ALOKAIRUAN

Taberna. Orexako taberna alokatzen da. Telefonoa: 943 68 20 29.

GALDUTAKOAK

Zakurra. Zakur bat galdu da, Husky-a. Azkeneko aldiz Lizartza-Orexa inguruan ikusi da. Telefonoak: 943 72 24 68 / 618 18 69 33.

LANA

Eskaintza. Neska bat behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. 943 67 58 95 (19:00etatik 21:00etara).

Eskaintza. Irurarako neska bat behar da bi ume zaintzeko. Goizez. Tlfn: 629 38 63 93.

HITZA
eskualdeko
plaza

▸ Interesgarria
▸ Zabala
▸ Parte-hartzailea
▸ Baterakoia

Egin zaitez HITZAren harpidedun!

HITZA egunkaria goizero zure etxeko buzoian jasotzeaz gain, harpidedun izateak dituen abantailez gozatzeko aukera ere izango duzu.

HITZA egunkariak bere harpidedunen artean zozketak, eskualdeko komertzioetan beherapenak... eskainiko ditu.

943 30 43 46
▸ Harpidetza saila / Arreta telefonoa:
astegunetan (08:30etik 20:30era)
larunbatetan (9:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko eta leitzaldeko
hitza

GIZARTEA ▸

Udan autoeskolara

Autoeskoletako gelak bete egiten dira udan; azterketak amaituta 18 urte bete berri dituzten gazteek oporraldiak aprobetxatzen dituzte gidabaimena eskuratzeko

IÑIGO TERRADILLOS

Urteko garai hau, azterketa garaia izan ohi da, batetik selektibitatea eta bestetik unibertsitateko azterketak izaten baitira. Hauen ostean, atsedenaldia dator eta askok oporretara joateko aprobetxatuko duten bitartean, beste askok auto gidabaimena lortzeko erabiliko dituzte udako egunak.

Gazteak, normalean, hemezortzi urte betetzen dituztenean uda noiz iritsi zain egoten dira, autoeskolara joateko gidabaimena lortzeko egin beharreko azterketak prestatzera. Hala eta guztiz ere, autoeskoletan jende gehien udan izaten den arren, eta gehienak gazteak badira ere, urte osoan zehar ere adin guztietako jendea egoten da gidabaimenerako prestatzen.

Uda partean ikasle gazteak nagusitzen dira autoeskoletan. IÑIGO TERRADILLOS

Hemezortzi urte izan aurretik, hamalaurekin ere, 49cc dituzten zikломotoreak gidatu daitezke. Hauek gidatu ahal izateko, baimena edo lizentzia behar da eta eskuratzeko bi bide daude: lehenengoa, autoeskolan ikastaro bat egitea da; zortzi orduko iraupena izaten du gutxienez eta autoeskolako irakasleak erabakitzen du ikaslea noiz dagoen baimena izateko prest. Bestalde, azterketa egitea ere eskatu daiteke; norberak bere kabuz prestatu behar izaten duen azterketa honek hogeita bost galdera inguru izaten ditu eta ongi egiznez gero zikломotorea gidatzeko baimena lortzen da. Badirudi, oraindik ziurtatzeko badago ere, zikломotorearen baimenak aldaketaren bat jasan dezakela, hamasei urtetan ezarri nahi baitute hauek gidatu ahal izateko muga.

Hamasei urterekin, bestalde, 49cc dutenetatik 125cc duten motozikletak barne gidatzeko baimena lor daiteke, azterketa teorikoa lehenik eta praktikoa gero gainditu ostean. Gainera, behin motozikleta baimena eskuratuta, autoa gidatzeko baimena lortzeko ez dago azterketa osoa berriro egin beharrik, hau da, ez dira bi azterketak, teorikoa eta praktikoa, egin behar; hemezortzi urte bete eta gero, autoaren proba praktikoa gainditzearekin aski da. Baina, hau ez da ohikoena izaten, jendeak, normalean, behin hemezortzi urterekin egiten baititu bi azterketak.

Bataz beste hogeita bost orduko praktikak egin dituzte. IÑIGO TERRADILLOS

Azterketa prestatzen

Azterketa teorikoa da lehendabizi gainditu beharrekoa eta hau prestatzeko modu desberdinak erabiltzen dituzte autoeskola batetik bestera. Liburu bat ematen zaiela laguntza moduan eta irakurtzen doazen heinean testak egiten dituztela dio hamahiru urte irakasle bezala lanean dabilen Ibarrako Ernio autoeskolako Josune Kerejetak. «Testak era nahasian ematen dizkiogu ikasleari,bestela liburuaren gaien arabera egiten badituzte, azken atalera iristen direnerako lehendabizikoan ikasitakoa erraz ahazten zaie, eta horrela berriz, testa egiten duten arabera liburuan trakurritakoaz oroitzen dira».

«Zaila izaten da ikasle guztiak ordu berean biltzea, horregatik nahiago izaten dut banan banan joan ikasle batetik bestera eta dituzten zalantzak argitu», dio Kerejetak.

«Lanean ari den jendeak etxean egiten ditu testak, eta gero zuzentzera eta egindako akatsak argitzera etortzen dira autoeskolara», dio Ernio autoeskolako irakasleak.

Alderdi teorikoan, mekanika arloan izaten omen dituzte neskek zailtasun handien, eta mutilentzat, argiari dagokion atala izaten da astunena.

Orohar, maila altua dagoela, eta ikasleak ongi prestaturik joaten direla bai teorikora eta bai praktikora dio Josunek; bestalde, «lehen Tolosaldekoak Donostiara joan behar izaten genuen proba praktikoa egitera, baina duela lau urtetik hona Beasainen egiten da eta lasaiagoa eta apur bat errazagoa ere izaten da orain».

Azken probarako, praktikorako, jendeak hogeita bost ordu egiten ditu bataz beste autoeskolako autoarekin, azterketara joan aurretik.

TOLOSA AUTO ESKOLA
Tel.: 943 65 16 53
San Frantzisko, 8 • TOLOSA
E-mail: autoesc.tolosa@navegalia.com

SOLOZABAL AUTOESKOLAK
garraio-lanbide heziketa
e-mail: solozabaleibar@hotmail.com
Tel.: 943 65 07 75 • Nafarroa Etorbidea, 2 • TOLOSA

tolosaldeko eta leitzaldeko hitza
Praktikak hilabetez HITZAn uztailean eta irailean
Kazetaritza eta Euskal Filologia lizentziaturetako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua
Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 - atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
(ekainaren 22a baino lehen)

BELATE AUTOESKOLA
Tel.: 943 65 52 31
Belate Ibilbidea, 8 - behea • TOLOSA

- ERNIO - AUTOESKOLA
Tel.: 943 67 50 60 • mug.: 651 702 815
Euskal Herria, 11 behea • IBARRA

LOPETEGI autoeskolak
Tel.: 943 65 11 17
Oria, 14 • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 88 21 74
Igartetxe, 2 • 20200 BEASAIN

XABI LOPETEGI ▸ AUTOESKOLA IRAKASLEA

«Jendea ongi prestaturik joaten da azterketara; orokorrean maila altua nabari da»

I. TERRADILLOS

Lopetegi autoeskolako Xabik hamalau urte daramatza irakasle bezala lanean. 1977an ireki zuen familiak autoeskola eta ordutik aita eta ama aritu ziren jendeari gidatzen irakasten. Hamahiru urte geroago, 1990ean bere anaia Iñigok eta berak familiak hasi zuenarekin jarraitzea erabaki zuten. Tolosan ezezik, gainera, Beasainen ere badute beste autoeskola bat. Urtetako esperientzia izanik, asko dira Xabi Lopetegik lan honen inguruan bizi izan dituen gertaerak.

IÑIGO TERRADILLOS

Gidabaimena lortzeko asmoz datorrenak zer egin behar du lehendabizi?

Guk, ikasleei nahiko astuna egiten bazaie ere, liburua osorik irakurtzea gomendatzen dugu. Irakurtzearekin batera testak egiten dituzte, lehendabizi atalka eta behin liburu osoa irakurri dutenean era guztietako galderak biltzen dituzten testak datoz.

Zein metodo erabiltzen duzue?

Eskolak ematen ditugu atal ezberdinen berri emanez, gure azalpenen bidez errazago ulertzen direla gai ezberdinak uste dugu. Edozein zalantza dutela ere guregana jo dezakete edozein unetan eta testak egiten dituztenean, berriz, izan dituzten akatsak argitzen dizkiegu banan banan.

Ahalik eta azkarren lortu nahi izaten du jendeak gidabaimena, ongi prestaturik al doaz azterketara?

Testak egitea nekagarria egiten zaie eta alderdi teorikoa segituan kendu nahi izaten dute gainetik. Guk gomendatu egiten dugu jendea, noiz dagoen prestaturik eta noiz ez esaten diegu, baina azken hitza beraiena izaten da, Orokorrean, jendea ongi prestaturik joaten da azterketara, bai teorikora eta baita praktikora ere.

Ikasle batekin autoan zoazela, batez ere, pazientzia handia izan beharko da ezta?

Hainbeste urte eta gero pazientzia izaten ikasten da. Pertsona bakoitza desberdina da eta tratua ere ezin berdina izan bataretzakin edo bestearekin.

Ziklomotorren kasuan, 14 urte izatetik 16 izatera ezarri nahi dute muga hauek gidatu ahal izateko.

Hamalau urterekin oso gazteak dira oraindik errepidean ibiltzeko. Hala ere, gazte batetik bestera alde nabaria egoten da, batzuk besteak baino helduagoak izan daitezke eta. Hau onartzen badute gainera, moto saltzaile eta fabrikatzaileez gain gure kalterako ere izango da.

Hainbeste urtetan pasadizoak ere ugari izango dituzu kontatzeko...

Asko dira. Gertatu ohi da praktikak egitean dena lasai joan inongo ustekaberik gabe, eta azterketa egunean bat-batean espero ez den zerbait pasatzea; adibidez gertatu izan da istripua izatea beste auto batek eta ondorioz itxaroten egon beharra. Zorte txarra izaten da hau. Xelebrekerien artean bat aukeratzekotan, duela gutxi gidabaimena lortu zuen 59 urteko mojaren kasua aipatuko nuke.

Azterketa egunean urduritasuna nagusitzen da.

Ikasle asko oso urduri jartzen da, eta baita irakasleok ere. Praktiketako autoek, pedalak bi aldetan izaten dituzte eta azterketa egunean ikaslearen ondoan joaten gara eta pedalak zapaldu beharrean aurkitzen bagara ez da gainditzen azterketa.

Gidabaimena lortzea garestia dela diote

Diru asko izaten da, baina kontuan hartu behar da bizitza osorako dela. Gainera, autoeskolak gastu handia izaten du; guk lau auto ditugu, Tolosan bi eta Beasainen beste bi, eta motoak eta kamioiak ere baditugu eta honek gastu handia suposatzen du.

Haurrak autoan

Gidatzea ez da jolasa eta askotan ez gara konturatzen eskatzen duen erantzukizunaz. Autoa edo bestelako ibilgailua gidatuz dabilenak argi izan behar du ez dela bera errepidean dabilen bakarra eta beraz, lege-hausteren bat —behar baino abiadura handiagoan joan, baimendua ez dagoen lekuan aurreratu...— egitearen ondorioz istripua eragiten badu bera ezezik errepidean dabilen edonor izan daiteke kaltetua.

Autoan haurrik badaramagu, gainera, badira, kontuan hartu beharreko neurri batzuk.

Autoan eusteko sistema egokiak erabili izan balira, errepideetan bizia galtzen duten ume asko bizirik leudeke, hiltzen diren %80a eta %90a alegia.

Bestalde, 0-12 urte bitarteko umeak atzean joatea gomendatzen da, eta era berean, eurentzako eginak dauden eusteko tresna bereziak ematera. Eusteko sistema hauek homologatuak izango dira.

Umeari ez zaio inoiz bakarrik utzi behar ibilgailuan, oso arriskutsua izan baitaiteke.

Gurasoek kontuan hartu beharreko beste neurria da umea ez dela sekula besoetan eraman behar. Egin diren azterlanetan 5 km/h baino abiadura handiagoan joanez gero, istripu bat gertatzen bada, pertsona helduak umea ezin duela eutsi frogatu da

Abiadura handiagoko istripuetan, berriz, larriagoa da kasua: 100 km/h-ko abiaduran hartutako talka etxe bateko 12. pisutik erortzea bezalakoa da. Eta 40 km/h-ko abiaduran hartutako kolpea, etxe bateko 3. pisutik erortzea bezalakoa izango litzateke. ◂

Izarti txokolategia
Sortalde, 1 • ANOETA • Tel.: 943 65 19 93

Anoeta automatikoak, sl
Jolaserako makinak
Tel.: 943 65 21 64 • ANOETA

Zure interesak hazi egingo dira... gora eta gora

ANOETA ▸ JAIAK

Sanjoanak arte azken eguna gaur Anoetako jaietan

Atzo ere izan ziren ekintza ugari jaietan, herriko txoko ezberdinetan

Txalapartaldi librea antolatu zuen atzo Udalak, hamaiketakoa ere eskaini zuen. G. AZKUE

Herriko 50 bat gazte kalejiran ibili ziren arratsaldean, herriko kalean zeharkatu zituzten dantzan. G. AZKUE

GARAZI AZKUE

Gaur izango da festetako azken eguna Anoetan. Astebete pasatxo eman du Anoetak festetan murgilduta, eta, sanjoanak bitarte, lasai egoteko parada izango dute herritarrek.

Baina atzo, festa giroa nabari zen herriko txokoetan. Txosnagunean, pasa den gaueko biharamuna pasata, arratsaldean eman zioten hasiera festari, gazteen kalejira izan zen herrin zehar. Gauean, berriz, afaria eta gazteen dantza izan zituzten, besteak beste.

Plazan, berriz, eguerdi partean txalapartak jarri zituzten eta gaztetxo ugari bildu zen bertan. Ondoren, pailazoak, bakailao lehiaketa edota afaria izan zituzten plazan. Festako kontzertu handia ere atzo izan zen: Dikers, Muted eta Eraso.

EGITARAUAK ▸ GAUR

EGITARAU OFIZIALA

11:00. Anoetako txistularien kalejira.
12:00. Pilota partidak pilotalekuan.
12:00. Sagardo dastaketa.
17:30. Herri kirolak.
19:30. Pasaiako Alkartasuna dantza taldearen emanaldia plazan.
22:00. Irailerako 6.
23:00. Zezen suzkoa.
Ondoren. Irailerako 6.

JAI ALTERNATIBOAK

16:30. Mus txapelketa eta toka txapelketa.
18:00. Poteoa txarangak alaiturik.

TOLOSA ▸

Azoka bereziaren aurrekoa atzo Tolosan

Azokarako berrikuntzak hurrengo astean ikusiko dira, azoka berezian

PABLO ALBERDI

Egun lasaia izan zen atzo Tolosako azoketan. Erosle dezente ibili zen arren, lasaitasuna izan zen nagusi. Saltzaile eta erosle gehienek bazekiten datorren astean sanjoanetako azoka berezia izango dela.

Nobedade guztiak datorren larunbatean aurkeztuko dituzte saltzaileek. Halere, atzo eskaintza polita izan zen, marrubia esaterako.

TOLOSAKO AZOKA ▸

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Oilaskoa (3 ast.)	1,50	-
Gineako oiloa	3,70	-
Arkumea	3,00	3,20
Ahatea	2,50	-
Urra	3,00	4,00
Intxaurra	3,00	4,50
Marrubia	3,00	-
Babarrun zuria	6,00	12,00
Tomatea	3,00	3,50
Kalabaza	1,50	3,00
Produktu ekologikoak		
Baratxuria	1,62	7,60
Arroza	1,90	2,00
Patata	1,52	-
Dilistak	2,40	-
Letxua	1,01	-
Kogoiloa	0,85	-
Berdura plaza		
Txilarra	4,50	-
Konifera	6,00	-
Geranioa	2,00	-
Lilia	1,20	-
Krabelina	4,80	-
Ziklamena	5,50	-

Herri Irratia
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira.
Interesa dutenak bidali currículum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

OTEGI eraikuntzak, s.l.
Promozioa eta eraikuntzak
Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA
Faxa:943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

iragarki laburrak ▸

Lorezainak, garbitzaileak, beharginak, zerbitzu anitzak, sukaldari laguntzaileak, Eusko Jaurlaritza eta udaletarako. Hurrengo inkorporazioak: Donostia, Bergara, Hernani. Doako informazioa. 943 444182.
Igeltseroak, iturginak, arotzak, beharginak. Plaza finkoak udal eta Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa. 943 444182.
Ezinduak. Erreserbatutako plaza finkoak. Lortu zure lanpostua udal eta Eusko Jaurlaritzan; garbitzaileak, gidariak, zaintzaileak edota zerbitzariak. Doako informazioa. 943 444182.
Ezinduak. Lanpostu finkoak erresidentzia, ospital, ikastetxe eta egoitza publikoetan. Doako informazioa. 943 444182.
Harreragile-telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurlaritza eta udaletan. Inkorporazioak laister. Doako informazioa. 943 444182.
Yate untzien gidaria. Lortu titulua eta gozatu itsasoaz. Doako informazioa. 943 444182.
Zaintzaileak. Haurrak eta agureak zaintzeko plaza finkoak udal eta Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa. 943 444182.
Liburutegiko zaintzaileak, udal artxibategi eta unibertsitatetan lan egiteko. Berehalako inkorporazioak. Doako informazioa. 943 444182.
Banketxe eta kutxak. Laguntzaileak behar ditutze. Ezinbestekoa: BBB. Inkorporazioak laister. Doako informazioa. 943 444182.
Gizarte langilea. Laster inkorporazioak udaletan, Foru Aldundian. Doako informazioa. 943 444182.
Osasunbidea. Administrariak, erizain laguntzaileak eta OLTrako 189 plaza. Doako informazioa. 943 444182.
Laborategiko teknikoa eta laguntzailea, ingurugirokoa. Plaza libreak erakunde ofizialetan. Doako informazioa. 943 444182.

HEZKUNTZA ▸

Amazabalen azken eguna dute etzi

Festa 'Maxurrenea herrintzat' lema buru dutela ospatuko dute

JAIONE ASTIBIA

Asteartean, hilak 15, burutuko dute kurtso bukaerako festa, Amazabal BHIn, 10:30ean hasita eta bertara hurbildu nahi duen guztia gonbidatuta dago bertan parte hartzera.

Kurtso guztian zehar pilatutako nekeak botatzeko, festa antolatu dute eta ekitaldi desberdinak izanen dira, guztiak ere Amazabal pilotalekuan burutuko direlarik, futbitoko txapelketa kanpoko harrizko zelaian eta mus txapelketa ikastetxeko gela handian jokatuko badira ere.

Ekitaldi guztietan ikasleak dira protagonista, bai kirolean eta baita erakusketa desberdinetan ere, zehazki, 1.go Batxilergoko ikasleek egindako informatikako lanak proiektatuko baitituzte alde batetik eta bestetik, berriz, dibertsifikazioko ikasleek egindako lanak ere ikusgai izanen baitira goiz guztian zehar, pilotalekuan bertan.

Jaialdi hau, herriko talde eta eragile desberdinak urte guztian zehar *Maxurrenea herrintzat* lemapean burutzen ari diren ekitaldien baitan, Amazabal BHIak antolatu duena da. Hau jakinaraziz, eskutitza igorriko dute Nafar Gobernura.

EGITARAUA ▸

'Maxurrenea herrintzat'

EKAINAK 15, ASTEARTEA

10:30. Pilota partiduak eta dibertsifikazioko lanen erakusketa.
11:00. Leitzaketa lehiaketa.
Ondoren. Informatitako lanen proiekzioa.
13:00. Sari banaketa.
Ondoren. Hamaiketakoa ikasleentzat.

OHARRA

Futbito eta mus txapelketa ere izanen dira.

LEITZA ▸ POLITIKA

HZren hitzaldia izan zen ostiralean

Herritarren Zerrenda plataformak hitzaldia burutu zuen Aurrera elkartean, ostiral iluntzean. Han bildu zirenek, plataformaren sorreraz geroztikako prozesu guztiaren berri izan zuten Miren Zabaleta hizlariaren eskutik. Besteak beste, adierazi zuenez, «hain denbora gutxian, apenas publizitaterik gabe, 41.000 herritarren atxikimena lortu izanak bakarrak, aurrera jarraitzeko bidezkotasuna eta kemena ematen digu» eta Europako Hauteskundeetarako itxaropen osoz agertu zen «gauden egoeran gaudela, piskanaka, baina aurrerantz goaz eta hau geldiezina da» adieraziz.

Hitzaldiko une bat. J. ASTIBIA

LEITZA ▸ KIROLA

Kirol Eguna izan zen atzo kiroldegian

Atzo egun guztian zehar kirol desberdinak ikusteko aukera izan zen kiroldegian. Goiz partean, lehendabizi, gimnastika erritmiko saioa izan zen. Hau Tolosa CF taldearen eskutik izan zen eta modalitate guztietako mugimenduak ikusi ahal izan ziren. Aipatzekoa da talde honetan herriko bi neskato ari direla ikasketak egiten: Ane Intxausti eta Naroa Oiartzun. Hauek ere beren aktuazioa egin zuten, elkarrekin. Ondoren saskibaloiari eta herri kiroletako konbinatuari iritsi zitzaien txanda.

Saskibaloian. J. ASTIBIA

LEITZA ▸ HEZKUNTZA

Erletakoek Atakondokoen bisita izan zuten ostiralean

Irurtzungo eskolako ikasleek antzerkia eskaini zieten herriko umeei zineman

J. ASTIBIA

Erleta eskolako ikasleek, Irurtzungo Atakondoa eskolako 6. mailako ikasleen bisita izan zuten ostiral goizean, izan ere irurtzundarrek *Goian eta behian* antzeslana eskaini baitzieten herriko zineman.

Ekimen hau hainbat eskoletan, ikasturtean zehar burutu duten antzerki programakoa da. Erletako 5. eta 6.mailako ikasleek beren aldetik, lau lan prestatu eta erakutsi dituzte: *Naufragoak*, *Maritxu nora zoaz*, *Pelukaren komeriak* eta *Korbata saltzailea*. Lan hauek herrian bertan ez ezik, kanpoan ere antzeztu dituzte, horien artean Irurtzunen. Orain trukean hangoak etorri dira.

Lan hauetan, antzerki obra bakoitzaren osaketan eta prestaketa lan guztietan, eszenatokia muntatzetik hasi eta azken arropa josi arte, ikasleek parte hartu dute, beraien irakasleen laguntzaz erabat. Obren egokitzapenak eta elkarrizketak, berriz, eskolako materialetik egin dituzte irakasleek.

10 bidaia zozketan

Karibe
Tunisia
Itsas bidaia
Dublin
Fitero

Ekainaren 12tik aurrera

Laguntzailea: Viajes Eroski

Euskaldunok behar dugun **berria**

tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

ARGITARATZAILEA: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
LEGE GORDAILUA: SS-0398-03
ZUZENDARIA: Joxemi Saizar
EGOITZA: Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa, 20400
TELEFONOA: 943 65 56 95 **FAXA:** 943 65 00 18
POSTA ELEK.: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
WEBGUNEA: www.tolosaldekohitza.info
TIRADA: 7.500 ale

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko 77 gizarte eragile: (HITZAren enpresan parte hartzeko, deitu 943 65 56 95ra)

Harpidedunei banatua ▸ 2004ko ekainaren 13a, igandea ▸ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK **udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Berastegi, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena 19 hotzena 14 | BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...) 943 30 43 46

AGENDA ▸

DEIALDIAK

Aiztondo. Jubilatuen irteera Urkiolara San Antonio eguna dela-eta. Bazkaria Ondarroan.
Aiztondo. Loatzo musika eskolako haurrek kontzertuak asteazkenean. Adunan, 17:30ean Elordin. Larraulen, 19:00etan udaletxean.
Ikaztegieta. Zahartzaroko gaixotasunak ezagutu eta horiei aurre egiteko gomendioak luzatuko ditu Ignacio Loyolak. 16:30ean Kiroldegian.
Larraul. Ipuin ordua: *Bi hartzak* 17:30ean liburutegian.
Tolosa. *Vogalonga 2004, boga Euskal Herria!* ikus-entzunezkoa eta Javier Puertasen hitzaldia arraun munduari buruz. Bihar Kultur Etxean 20:00etan.
Tolosa. Kanpoko emanaldia Trianguloan 18:30ean: dantzak, musika eta mimoa. Sarrera doan izango da.
Tolosaldea. Datorren larunbatean autobusa antolatu dute Alcalako espetxera, Manu Azkarateri elkartasuna adierazteko. Txartelak Tolosako Kultur Etxean, Rakun eta Laierren, Alegian, Anoetan, Villabonan eta Zizurkilen.
Villabona. Jesusen Bihotza ikastetxeko kurtso bukaerako festa Txerminen: 9:00etan trikitilariak eta futbol partidak, Krosa, ikuskizunak eta jokoak.

ERAKUSKETAK

Ibarra. Jose Lusi Longaron irakaslearekin egon diren hamaika ikasleen pintura lanak Kultur Etxean, hilaren 13a arte.
Tolosa. Maria Carmen Gorbea margolaria. Saikin tabernan.
Tolosa. Charo Medrano pintorea. Lanbroa tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Tolosaldea. Gaur, Quetglas. Euskal Herria 46 (Ibarra).67 42 74. Bihar, Morant. Zabalarreta 1 (Tolosa) 67 38 49.
Leitza. Plaza. Elbarren 36. 112

JAIAK

Anoeta. Jai alternatiboak. 16:30ean mus eta toka txapelketak eta 18:00etan poteoa.
Anoeta. Egitarau ofiziala. 11:00etan kalejira, 12:00etan pilota partidak eta sagardo dastaketa; 17:30ean herri kirolak, 19:30ean Alkartasuna dantza taldea, ondoren Irailerako 6-ren kontzertua eta 23:00etan zezen suzkoa.

ZINEMA

Tolosa. *El dia de mañana* Leidorren. 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean.

ZORION AGURRAK ▸

Kristina Izagirre (Tolosa). Zorionak eta muxu handi bat, senarraren, seme-alaben eta zure iloba Asier, Ander eta Oihanaren partetik.

URTE ASKOAN
Nagore Esnaola (Txarama). Herenegun 21 urte. Etxekoen partetik. Aupa prexioxa.

URTE ASKOAN
Jose Ramon Esnaola (Txarama). Atzo 50 urte. Etxekoen partetik. Aupa Gallego!

URTE ASKOAN
Itziar Oiartzun (Leitza). Muxu bat familia guztiaren partetik atzoko partez.

ZORIONAK
Maria Jesus Insausti eta Antonio Lopetegi (Tolosa). Gaur 45 urte ezkondu zirela. Egun ona pasa dezagun familia osoaren partetik.

URTE ASKOAN
Joxemari (Amezketa). Bihar 26 urte. Zorionak eta ondo pasa eguna, lanean bada ere.

URTE ASKOAN
Joxemari (Amezketa). Bihar 26 urte, zorionak eta muxu bat Aitorren partetik.

URTE ASKOAN
Imanol Calderon Santin (Tolosa). Gaur 3 urte. Zorionak familia gauztiaren partetik.

URTE ASKOAN
Edurne eta Jose. Ekainaren 9an zilarrezko ezteiak egin zituzten. Gaur zuen kontura bazkalduko dugu! ZORIONAK

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.
Mila esker!

URTE ASKOAN
Arantxa Sarasola (Izaskun-Ibarra). Gaur 3? urte. Zorionak amatxo, Aimar, Iraitz, eta ebekoen partetik. Egun ona pasa.

URTE ASKOAN
Maialen Puras (Anoeta). Gaur 10 urte. Zorionak aita, ama eta Joneren partetik.

URTE ASKOAN
Jon Ander Aranalde Ramiro (Berastegi). Bihar 3 urte. Zorionak aita, ama, Aiora eta Mirenen partetik.

URTE ASKOAN
Aimar Murua Antolin (Altzo). Gaur urte bat, zorionak eta muxu bat familia guztiaren partetik.

DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAren LAGUNTZAILEAK DIRA
Egin itzazu zure erosketak bertan

-Pottoko Haur Jantziak
-Nerea Lentzeria
-Mikel Izagirre Ileapaintzaileak
-Iriarte Lentzeria
-Berezi Neurri Bereziak
-Factory
-Elite Kirolak
-Bazar Amiano
-Kopibat
-Cid Bitxitegia
-Lizarribar Oinetakoak
-Arri Oinetakoak eta Konponketak
-Desgaste Oinetakoak
-Aralar Kirolak
-Muebles Garces
-Poxpolin Haur Jantziak
-Oski
-Garikano 1815
Azpiko Arropa
-Amaia Lentzeria
-Kiara Bitxitegia
-Poxpolin Enmarkazioak eta Opariak
-Milar Electro-Hogar
-Imen Bitxitegia
-Pressto Tintoreria
-Oñativia Lurrindenda
-Elola Altzariak
-La Vasconia
-Axular Oinetakoak
-Iratzar Erlojutegia
-Zumeta Elektrogailuak
-Arretxe Mertzeria
-Ugarte Bitxidenda
-Bitxilore
-Juan Luis Bitxitegia
-Ezenarro Leihoak
-Kanikak arropa denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETETAN.
Martxotik ekainera
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN !
*Promozio hau ez zaie beste beherapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.